

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ANDOAINGO UDALAREN 2018-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den urriaren 29an Andoaingo Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena.

2018ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 1,2 mila euroan gehitzen duten zenbait doiketa azaleratu diren. Gainera, ezin ondoriorik eskuratu izan da Udalaren Balantzeko aktibo ez arrunteko saldoei dagokienez.

HKEEk fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen **egoera finantzarioa** aztertu du eta azpimarratu du **hobetu egin dela** bai eragiketa arrunten egitura, bai sortutako aurrezki-maila. Gainera, adierazi du 2018ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Geldikina hirurtekoko inbertsio garbien parekoa dela eta zorpetzea gainditzen duela.

Halaber, Udalaren kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, **2018an aurrekontuaren egonkortasun, zor publikoaren eta gastuaren araua bete da.**

Udalak zuzentasunez **bete du** 2018ko ekitaldian ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz **unean uneko salbuespenak** azaleratu diren **Kontratazioaren** atalean (bi kontratu luzatu dira mugaegun-epea gaindituta eta kontratu txiki modura izapidetu dira prozedura ireki bidez esleitu behar ziratekeen zazpi zerbitzu).